

**BERAKO MENDI MARATOI ERDI ETA GAZTE TRAILERAKO**  
**IZEN-EMATEA MARTXOAREN 6AN IREKIKO DA**

**Maratoi erdia Euskal Herriko Kopa eta Nafarroako Mendi Lasterketen**  
**Zirkuituko rankingerako puntuagarria izango da**

Apirilaren 16an, igandea, egingo den Berako Mendi Maratoi Erdian izena emateko epea martxoaren 6an, astelehena, 15:00etatik aurrera irekiko da, [www.pb-organisation.com](http://www.pb-organisation.com) webgunean.

525 dortsal egongo dira eskuragarri. Dortsalak agortzen ez badira, izen-ematea apirilaren 13an itxiko da.

Prezioa iazko berdina izanen da: 28 euro korrikalari federatuentzat eta 32 federatu gabeentzat. Izena emateko ez da beharrezkoa aldeztatik [pb-organisation.com](http://pb-organisation.com) webgunean erregistratuta egotea.

Aurten, Berako Mendi Maratoi Erdiak Euskal Herriko Lineako Koparako kontatuko du. Txapelketa hau Euskal Mendizale Federazioak eta Nafarroako Mendi eta Eskalada Kirolen Federazioak antolatu dute, herrialde guztietako kirolariek parte har dezaten eta Euskal Herriko hainbat lurraldetan zehar ibil daitezten.

Lehiaketak, kategoria absolutuan eta beteranoen azpikategorian, zortzi froga izanen ditu. Euskal Herriko Kopa Kolazino Mendi Egunean hasiko da, Bizkaian, martxoaren 18an, eta Berako proba hirugarren puntuagarria izango da. Irailaren 23an amaituko da txapelketa, Azkaineko Skyrhune lasterketarekin.

Berako Mendi Maratoi Erdia Nafarroako Mendi Lasterketen Zirkuituan ere sartzen da. Honek 23 froga ditu eta Berako proba baliagarria izango da Nafarroako rankingerako. Lasterketa guztiek puntuatuko dute, eta ekainean eta abenduan sariak banatuko dira, erregulartasuna saritzeko.

## GAZTE TRAIL

Aurreko edizioetan bezala, aurten ere Gazte Traila egingo da, eta berritasun moduan, Nafarroako Kirol Jokoen barruan egongo da.

Gazte Traila hiru kategoriatan banatuko da: haurrak (13-14 urte, 2009-2010ean jaiotakoak); kadeteak (15-16 urte, 2007-2008an jaiotakoak) eta gazteak (17-18 urte, 2005-2006an jaiotakoak).

Izen emateak Nafarroako Mendizale Federazioan egin daitezke klub edo ikastetxe baten bidez, edo [www.pb-organisation.com](http://www.pb-organisation.com) webgunean. Gazte kategoriako lasterkariak 7 euro ordainduko dituzte eta umeak eta kadeteak, bi euro.

